

Eleaniztasunari eta Teknika Legegileari buruzko Sinposioa

(Symposium on Multilingualism and Legislative Techniques)

ELOSEGI ALDASORO, Antton

Euskara Juridikoko irakaslea
Euskal Herriko Unibertsitatea
Manuel de Lardizabal, 4
20018 Donostia
fvpelala@sd.ehu.es

GARMENDIA IARTZA, Koro

Eleriako idazkari teknikoa
Eusko Ikaskuntza
Mirakontxa, 48
20007 Donostia
eleria@sk.ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2001), 8; 117-122]

Zurralde eleanizetan,
nola gauzatzen da legegintza?
Zein hizkuntzatan moldatzen dira
erakundeak beren jardunean?
Nola elkarbizitzen dira hizkuntzak?
Zein eredu aurki ditzakegu ikuspegi
konparatuan? Galdera hauen
eta beste hainbaten erantzunak
argitu zizkiguten Euskal Herriko
zein eleaniztasuna bizi duten hainbat
herrialdeetako adituek
Deustuko Unibertsitatean izanda-
ko sinposiumean zehar.

¿En qué lengua se
desarrolla el proceso legislativo en
los países plurilingües? ¿Cómo
conviven las lenguas oficiales en
la actividad de las instituciones?
¿Qué modelos podemos hallar en
el panorama internacional? Los
expertos procedentes tanto de
Euskal Herria como de varios paí-
ses plurilingües analizaron estas y
otras diversas cuestiones en el
simposio organizado por la
Universidad de Deusto.

En quelle langue le pro-
cessus législatif se déroule-t-il
dans les pays polyglottes?
Comment les langues officielles
cohabitent-elles au sein de l'activi-
té des institutions? Quels modèles
pouvons-nous trouver dans le
panorama international? Les
experts provenant aussi bien
d'Euskal Herria que de divers pays
polyglottes analysèrent ces ques-
tions et plusieurs autres au cours
du symposium organisé par
l'Université de Deusto.



Eleaniztasun-egoeretako legegintza-teknikan adituak hizketan hasi baino lehen, politikari eta arduradunen mintzaldietan entzun ahal izan genituen gogoetatik bi azpimarratu nahi genituzke. Alde batetik, eleaniztasuna arazo-iturri ez, baizik aberastasunen iturburu bezala hartu behar dugula. Belarrien gozagarri, elebakartasun globalaren ideologia nagusitzen ari den une honetan. Beste gogoeta, berriz, bai sarrerakoetan bai ondokoetan ikasi ahal izan genuenez, zenbat lan, zenbat neke eta zenbat arazo ematen digun euskaldunoi –baina ez guri bakarrik– gure hizkuntza besteen parean ikusi nahi izateak.

Sinposioaren gaiaren aurrekari historikoak marrazteko eginkizuna izan zuen lehen hitzaldiak. Izan ere, antzinako inperio guztietan ezagutu zituzten eleaniztasunaren gazi-gezak: ez dira atzo goizekoak Sinposioari aztergaia eman dioten arazoak. Baina, oraingo estatu demokratikoetan ez bezala, inperio haietako legegintzan beste hizkuntzak erabili baziren, ez zen subdito alofonoen eskubideak errespetatzearen. Mende asko, milurtekoak, igaro beharko dira hizkuntzak eskubideen zio izan daitezkeela pentsatzen ere hasteko. Oso bestelakoak ziren inperio haien xedeak eleaniztasuna kontuan hartzerakoan: guztiz praktikoak, legea ezagutaraztea, besterik ez. Inperioen paradigma, eta oraingo zuzenbidearen iturri den Erroma ere ez zen eleaniztasunaren arazoetatik libre izan. Juan Churruca irakasle adintsu ospetsuak argitu zigunez, mendebalera egin zuenean Erromak ez zuen bereari itzalik egin ziezaiokeen kulturarik ez zuzenbiderik aurkitu. Hispanian edo Galian ahozkotasan hutsa zenez zuzenbidearen garraiatzailea, ez dago elebitasun ofizialaren arrastorik; latina bilakatzen da lurralde horietako zuzenbidearen hizkuntza bakarra. Baina inperioaren ekialdean grekoa zenez kulturaren eta merkataritzaren *lingua franca*, Erromak ezin zezakeen dena birrinduz ekin. Hainbat lege-testu eta instrumentu juridiko elebitan, latinez zein grekoz, idatzita aurkitzen da. Bada, esaterako, *De excusationibus* bezalakoa, latinezko izenburua eduki arren, osoki grekoz idatzita datorrena, eta itzultzaile-idazlearen hainbat gogoeta eta argibidez horniturik. Haren bidez dakigu nolako zailtasunak zituen grekoz adierazteko Erromako kultura juridikoan eta latinez sortutako legean. Izan ere, latinez landutako kontzeptu juridikoak ez zetozen bat grekoa nagusi zen lurraldeetan garatutakoekin. Hain zuzen ere, Kanadan, geroxeago entzun ahal izango genuen bezala, horrenbeste buruhauste eta gogoetaren iturri den arazoak bazeuden orain hogeitau hemezortzi mende.

Michel Doucet, Moncton Unibertsitate frankonoko kanadiar jurista irakaslea antzinatea utzi eta gaurko egoeraz jardun zen. Dakigun bezala, Kanada ez da inperio bat, baina bai elebitasunaren konbinazio guztiak bere baitan

dituen gizarte bat, eta inperioek ez bezala, biztanleen hizkuntza eskubideak oso aintzakotzat hartzen dituen sistema juridiko-politikoak. Ez da, beraz, soilik Québec-eko salbuespen frankofonoa mundu ingelesdun batean. New Brunswick probintzia txikian, frankofonoak gutxiengoa dira, baina legegintza guztiz elebiduna izaten saiatzen da. New Brunswick-en, Kanada osoan bezala, hizkuntza eta zuzenbidea oso modu korapilatsuan lotuta aurkitzen dira. Izan ere, Common Law-eko arau bat zuzenbide zibileko sistema baten sustengu den frantsesa bezalako hizkuntza batean emateak oso arazo konplexuak dakartza, ongi, kalitatezko hizkera juridikoa, eta frantses ona erabiliaz egin nahi bada. Aspaldi ohartu ziren legeak ingelesez idatzi eta ondoren frantsesera itzultzen zirenean, hala zuzenbidea nola hizkuntza galtzaile ateratzen zirela. Izan ere, oso desberdinak dira zuzenbide-sistema bateko eta besteko kontzeptualizazioak, eta oso desberdinak hizkerak. Hizkera-molde berri bat sortu behar izan dute, autore batzuek CLF (Common Law en français) izendatu baitute, kultura anglosaxoieko legeak frantsesez adierazi ahal izateko. Eta aspaldi konturatu zirenez zuten beste hizkuntza batetik beti itzultzen ibiltzeak dakarrena morrontza linguistikoa dela, urrats sendoak egin dituzte bi hizkuntzak benetan ofizialak izan daitezen, biak jatorrizkoak, ez bata bestearen itzulpen. Teknika asko saiatu ondoren, lege-asmo guztiak lege-proiektu bihurtzen direnerako bi hizkuntzetako jurista-erredaktatzaile talderen eskuetan jartzen dira: "korredakzioaren" bidez bertsio bikoitza

“ New Brunswick-en aspaldi konturatu zirenez zuten beste hizkuntza batetik beti itzultzen ibiltzeak dakarrena morrontza linguistikoa dela, urrats sendoak egin dituzte bi hizkuntzak benetan ofizialak izan daitezen, biak jatorrizkoak, ez bata bestearen itzulpen

”

ekoizten da, eta hori da parlamentura doana: bi testuak dira eztabaidatzen direnak, bi, linguistikoki eta juridikoki balioak, argitara ematen direnak.

Felix de la Fuente Pascualek, Europako Parlamentuko espainierazko akten arduradunak, bere esperientziaz baliaturik, Europagintzako asmo onez eta arazoez argitu gintuen. Europako Komunitatean (lehen), Batasunean orain, sortzetik egon den printzipioa da kide guztienek, eta beren hizkuntza (ofizial nagusien) berdintasuna, hots, eleaniztasun juridikoa, inoiz orain arte praktikatu ez den moduan. Izan ere, Europako zuzenbidea bere hizkera propioa –neurri batean– sorrarazten ari da estatu kide bakoitzaren hizkuntzan: terminologia berri bat sortzen ari da, ez duena nahitaez aurretik estatu bakoitzean erabiltzen zenaren berdina izan behar. European, teorikoki bederen, inongo hizkuntzarik ez du lehentasunik, ez arauen genesian, ez aplikazioan, ez interpretazioan. Strasburgeko Auzitegiak behin eta berriro ebatzi duenez, ez da inoiz patroiz bezala testu bat hobetsiko hizkuntzetako bertsioen artean desberdintasunak atzematen direnean. Berdintasun osoa, bai, asmoetan, baina zenbait hizkuntza, estaturen barruan ofizialkide, euskara bezala, bazterturik geratzearen ordainetan, eta praktikan, benetako berdintasunik ez erabileran. Europako izpiritu fundatzaileak debekatzen duen arren, ukaezina baita hiruzpalau hizkuntza direla nagusi: hariak dira lan-hizkuntza, eta horietatik baliatzen dira besteen arteko zubi gisa.

Izan ere, oso zail bada oraingo 11 hizkuntzetan funtzionatzea, urduritzen hasiak dira zer gertatuko den 15 izaten direnean. Arau-testu pobeak egitea egotzi izan zaio Europari, baina eleaniztasunaren arazoak baino eragin handiagoa bide du parlamentarismoak berezkoa duen konpromisoa eta transakzioa. Testuetan erroreak eta dibergentziak ugari omen dira, itzultzaile berriak kontratatuzko diruak ez dira, ordea, gehitzen. Badirudi galbidean doala Europa eleaniztuna eraiki nahi zuten ikerle haien fedea.

Europa politikoa sortzen hasi aurretik, bazen European erdian eleaniztasunarekin juridikoki eta demokratikoki jokatzeko eskarmentu handia bereganatutako herri txiki bat. Georges Lüdi, Basileako unibertsitateko irakasle, hizkuntzalari eta soziolinguista izan zen Suitzako hizkuntzen egoera juridikoaren berri eman ziguna. Haren irakatsietatik azpimarratuko gurek nolako egonkortasuna lortu den mende luzeetan zehar hizkuntza bakoitzari atxikitako lurraldeei dagokienez, nahiz eta oso desberdina izan bakoitzaren pisua Suitza osoan. Baina oro harreko egonkortasun horrek badu bere aurpegi iluna: erromantxearen egoera negargarria. Lurraldetasuna, hizkuntza lurraldeari, eta ez pertsonari, atxikita egotea, alegia, tresna eraginkorra izan bada, haren ondorioak ez dira beti baketsuak. Gaurko egunean ere, hainbat auzi juridiko-politiko irekirik dago arazo horien inguruan.

“ European, teorikoki bederen, inongo hizkuntzarik ez du lehentasunik, ez arauen genesian, ez aplikazioan, ez interpretazioan ”

Lüdi-k, soziolinguista denez, ezin zituen ahantzi Suitzan, etorritakoek ekarritako hizkuntzak, zeinetarik batzuk, bertako erromantxeak baino hartzu gehiago dituzten, hizkuntza nazionalaren estatusik gabe, noski. Beste hainbat informazio eta gogoeta interesgarri jaso genituen Lüdi-ren mintzaldian, baina ez zegozkien zuzen-zuzenean Sinposioaren izenburuari.

Myttenaere belgiarrarena izen zen atzerriko adibideen saioko beste hitzaldia. Belgikako Ordezkarien Ganberako idazkari nagusiaren ondokoak Mendebaleko Europako beste eredu tipikoaren gorabeheren berri eman zigun. Maiz aurkeztu ohi da Belgika Suitzaren aurkako ereduaren paradigma bezala, hau da, hizkuntza komunitateen arteko konponezinaren, etengabeko borrokaren erakusleho balitz bezala. Egia esan, badira estatu horren historian hainbat ideia hori guztiz desbideraturik ez dagoela egiaztatzeko. Izan ere, XIX. mendean zehar hizkuntza komunitate batek, flandriarrak, nederlanderaz mintzo denak, etengabe borrokatu behar izan zuten berdintasun juridikoa eskuratzeko. 1898 urtean aldarrikatzen da berdintasuna: Loi d'Égalité izenekoan, hain zuzen ere. Orduz geroztik legeak hala frantsesez nola nederlanderaz argitaratzen badira ere, XX. mendean hainbat lege linguistikoki berri eman dira. Gaurko egunean zail izango litzateke bi hizkuntza nagusietako bat nolabait diskriminaturik dagoen zantzurik aurkitzea. Belgikan ere hizkuntzen egoera juridikoak anitzak dira. Flandria eta Walonia, eta alemana hitzegiten duena, lurralde elebakarrak dira: berezko beste hizkuntzek ez dute ofizialtasunik, baina hala estatu (gobernu, parlamentu...) zentrala nola Brusela, elebidunak dira, eta elebitasun hori, begininia bezala zaintzen da. Legegintzan, esate baterako, urrats guztiak bi hizkuntzetan egin behar dira, proiektutik, argitalpena arte une oro bi hizkuntzen erabilera eta balio berdina babestuz. Behin baino gehiagotan azpimarratu zuten Myttenaere jaunak nolako arretra jartzen

duen Belgikako estatu federalak elebitasun juridikoa zaintzearen alde, eta azaldu zuen nola horren agerpen bat den lege guztiak, Belgikako aldizkari ofizialean, argitalpen berean eta elkarren ondoko bi zutabetan, argitaratzea.

Jardunaldien lehenengo atalean hizkuntza ofizial bat baino gehiago dauzkaten atzerriko hainbat Estatutan bizi duten egoera aztertu ostean, esparru geografikoa espainiar Estatura mugatu, eta autonomia erkidego desberdinetako hizkuntza ofizialkideetan gauzatzen den legegintzaren ezaugarri heldu zitzairen. Konstituzio espainiarraren esanetan, hizkuntza aniztasuna, "aberasgarria" izateaz gain, "babes berezia" merezi duen fenomeno dugu (KEko 3.3 artikulua: "La riqueza de las distintas modalidades lingüísticas de España es un patrimonio cultural que será objeto de especial respeto y protección"). Ikus dezagun zer dioten adituek hizkuntza ofizialkideen egoeraren inguruan azpimarratu nahi dituzten alderdiei buruz.

Lehenik eta behin, Estatu espainiarreko hizkuntza egoerari gainbegirada orokor bat emanaz, UNEDeko Administrazio Zuzenbideko irakasle eta errektoreordea den Jesús Prieto de Pedro mintzatu zen. Diziplina juridikoan erabiltzen den hizkeraren espezializazioa nabarmendu nahi izan zuen bereziki, eta, zehazki, honakoa: Zuzenbidearen esparruan ez dabilen jendearentzat erabat ulergaitzak direla bertan erabiltzen diren hitzak. Ostera, Zuzenbidea ez zaie juristei bakarrik zuzentzen, hiritar guztiei baizik. Eta, jakin badakigu zer dioen Kode Zibilak: "la ignorancia de las leyes no exime de su cumplimiento". Nola bete, baina, ulertzeko eragozpenak sortzen dituzten terminoak darabiltzaten arauak?

Prieto de Pedro irakasleak bi baldintza bete ditzala eskatzen dio Zuzenbidearen munduko hizkerari: batetik, argia izan dadila, hiritarrek ulertzeko modukoa, azken batean hauek baitira arauen hartzaileak, eta, bestetik, zehatza, bestelakoan ezinezkoa izango bailitzateke segurtasun juridikoa bermatzea. Egungo lege jariora –hizkuntzalariren batek "legislarragia" izenez bataiatu duena– ikusi besterik ez dago, errealitatea argitasun eta zehaztasun horietatik urrun samar dabilela baieztatzeko.

Katalunia, Galizia, Balear Uharteak eta Valentziako Parlamentuetako egoerak izan ziren ondoren aztergai. Carles Duarte i Montserratek (Kataluniako Generalitateko Lehendakartzako idazkari nagusia eta *Revista de Llengua i Dret* aldizkariaren zuzendariak), Luis Rodríguez Ennesek (Erromako Zuzenbideko katedraduna Vigoko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean eta *Lingua e Dereito* aldizkariaren zuzendariak), Catalina Palmer i Taura (Balear Uharteetako Parlamentuko Itzulpen eta Argitalpen zerbitzuburuak) eta Jose Luis Masía Alonsok (Valentziako Gorteetako Argitalpen

“ **Itzultzaile eta legelarien adierazpenak bat etorri ziren: euskara, itzulpen hizkuntza baino ez da; ez dago lan hizkuntza denik esaterik** ”

zerbitzuburuak) adierazi zutenaren arabera, lau autonomia erkidego hauek bizi duten egoerak antza gutxi dauka Euskal Autonomia Erkidegoan daukagunarekin; izan ere, bertako parlamentuetan hurrenez hurren katalanez, galizieraz zein valentzieraz egiten dute ordezkari autonomikoen. Arauak ere hizkuntza horietan onartzen dira, gero, azken pauso batean, gaztelaniara itzultzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko zein Nafarroako organo legegileetan lanean diharduten adituek marraztu zuten panorama ez zen, ez, aipatu berri ditugun autonomia erkidegoek bizi duten egoeraren parekoa. Gaur-gaurkoz, hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania izan arren, eta juridikoki bata zein besteak balio eta eraginkortasun berbera edukita ere, norantza zehatz bat darrai legegintza prozesuak –eta, funtsean, baita gainerako gehientsuenek ere–: gaztelaniatik euskarara.

Eusko Legebiltzarreko, Nafarroako Parlamentuko nahiz hiru lurralde historikoetako Batzar Nagusietako itzultzaile eta legelarien adierazpenak bat etorri ziren: euskara, itzulpen hizkuntza baino ez da, ez dago lan hizkuntza denik esaterik, salbuespen gutxiren batzuk badiren arren. Legegintza prozesuan zehar ez da euskaraz egiten; aitzitik, eztabaidak, txostenak, eta horien guztien ondorioz sortzen diren arauak gaztelania hutsean gauzatzen dira. Euskara *ex post* baino ez da ikusiko, hain zuzen ere ele bietan ipini beharra agintzen duten arauen esanak betetzeko unea heldu zenean. Orduan ipiniko da araua itzultzaileen esku, mandatuak errespetatzearen. Ohitura bihurtu da hasiera-hasieratik legegintza prozesuari gaztelaniaz ekin eta azken fasera bitartean horrelaxe jarraitzea; tamalez, ez da erakundeek beren funtzionamenduaren lehen urteetan egin zuten aukeraren norabidea aldatu.



Deustuko Unibertsitateko hitzaldi aretoaren ikuspegia, simposiumean zehar

Hala eta guztiz ere, euskaraz idatzi behintzat egiten ez bada ere, ez litzateke zuzena izango entzun ere egiten ez denik esatea. Talde parlamentario batzuek euskaraz egiteko konpromisoa hartu dute, eta hala mintzatzen dira. Beste alde batetik, kasuen %99an jatorrizko hizkuntza gaztelania izan ohi den arren, oso gutxitan bada ere, %1 besterik ez, ematen da alderantzizko zentzuko itzulpenik ere, euskaratik gaztelaniara alegia.

Euskal Autonomia Erkidegoan zein Nafarroan, beraz, arauak ez dira alde batetik gaztelaniaz eta bestetik euskaraz sortzen. Gaztelania erabiltzen da izapidetzan zehar, baina euskara ere ofiziala denez gero, eta ofizialtasun hori hainbat eskubide eta betebeharren iturri denez, gaztelaniaz sortutako hori euskaraz ere jaso beharra dago. Nola? Itzulpenaren bidez. Ikus daitekeenez, euskal itzultzaileak halako "legegile" kutsu bat dauka. Izan ere, jatorrizko araua –gaztelaniazkoa alegia– legebiltzarkideen eskuetatik igaro ostean sortu baldin bada ere, itzultzaileari ematen zaio mandatu horren edukari euskal moldea ematearen ardura. Ez dira legebiltzarkideak izango gaztelaniaz sortu duten araua euskaraz ere sortzeaz arduratuko direnak.

Oraingoz behintzat ez dago euskal legegintza prozesu batez hitz egiterik. Urrun gelditzen zaigu, oso, Kanadan *corrédaction*

izenez bataiatu duten teknika. Izenak berak dioen bezala, arauak aldi berean prestatzen dira ofizialkideak diren hizkuntzetan (frantsesa eta ingelesa); bertsio bakoitza bestearekiko autonomiaz eta inguruabarrei so eginez idatzen da. Ez da bata bestearen itzulpena izango. Ezin hitz egin, ondorioz, jatorrizko testu batez eta xede testu batez, eta ezta menpekotasun harremanez ere.

Hainbat dira arlo juridikoan gaztelaniaz egitera bultzatzen duten arrazoiak, eta horien artean nagusienak aipatzekotan, batetik, ohitura legoke, gaztelaniazko Zuzenbideak tradizio luzegoa duenez gure artean, legelariak ere hizkuntza horretan jarduten daudelako ohituta. Horrekin lotuta, erosotasuna legoke, burukomin gutxiago sortzen baititu jada errotuta dagoen eta aski ezaguna den hizkera teknikoan egiteak, euskaran bideak urratzen ibiltzea baino, oraindik berriak diren eta guztiz finkatu gabe dauden termino juridiko-teknikoen artean egokiena izan litekeena aukeratzen ibiliz. Legeria, doktrina eta jurisprudentzia gaztelaniaz egotea ere, haietara zuzenea jotzeko aukera izanik, itzulpen lanei ekin behar izanik gabe, arrazoi astun bat dugu. Esan bezala, ez dira hauek zio bakarrak; beste anitz aurki litezke.

Itzulpen prozesuan zehar sortzen diren arazoak ez dira, ez, makalak. Itzulpengintzak

berez dauzkan zailtasunei, erakunde autonomikoetan eztabaidatu eta onartutako araei darian zehazgabetasuna bezalako eragozpenak gehitu behar zaikie. Arauak ez baldin badira garbi ulertzeko moduan idazten, eta erabiltzen duten terminologia ez baldin bada behar bezain zehatza, hizkuntza ofizialkidera itzultzeko orduan arazoak biderkatu baino ez dira egiten. Zaila egiten baldin bada arauak jatorrizko hizkuntzan duen esanahi zehatzaz jabetzea, are korapilotsuagoa gertatzen da xede hizkuntzan ez gehiago, ez gutxiago adierazteko moduan ipintzea. Beste alde batetik, litekeena da itzultzaileak ulertu duena –eta, ondorioz, itzuli duena– ez izatea jatorrizko esakuneak aditzera eman nahi zuen gauza bera; kasu horretan, jasotzaileak hizkuntza batean edo bestean irakurri, ez du mezu berbera jasoko.

Arau juridikoen itzultzaileek hainbat gomendio luzatzeko parada izan zuten jardunaldiotan. Ez dira mota berekoak Katalunia, Galizia nahiz Valentziako itzultzaileek eta Euskal Herrikoek dauzkaten arazoak. Lehenengoei dagokienez, formaren inguruko irizpideetan kontzentratzen dira beren gorabehera gehientsuenak; hots, noiz idatzi letra larriz eta noiz xehez, toponimia nola erabili, etab. Euskal Autonomia Erkidegoan nahiz Nafarroako Foru Erkidegoan, aldiz, sakonera handiagokoak dira arazoak: hainbat hitzen itzulpen zehatzak zein behar duen izan, gaztelaniazko menpekotasunezko esaldi luze-luzeak euskaraz nola jaso, erakundeen izenak nola itzuli, eta abar.

Hizlariak aurkeztu zuten errealitateari so eginez, zera esan liteke: hain dagoela zabalduta gaztelaniazko jarduna, oro har araudiak aldarrikatzen duen elebitasuna bermatzeko baizik ez dela itzulpena jotzen. Arauak egun gaztelaniaz gain euskaraz ere egotearen ia arrazoi bakarra, ordenamenduak agintzen duen elebitasunari men egitea besterik ez dela esatera ere ausar gintezke. Izan ere, itzulpen horiek ez diote komunikazio beharrari erantzuten. Koldo Bigurik, Arabako Batzar Nagusien zerbitzura dagoen EIZIEko lehendakariak aipatu bezala, itzulpenak balio sinbolikoa baino ez du.

Nolanahi ere, ezin uka euskarak aurrera egin duenik. Hasteko, ez da gutxi arau juridikoak euskaraz irakurtzeko aukera izatea, aldizkari ofizialak egunero-egunero bi hizkuntzetan aurkitu ahal izatea. Gaztelaniaren morrontzatik askatzen joan eta hizkera propioa moldatzen aritzea ez da goizetik gauera egin litekeen gauza, ez euskararen, ez beste inongo hizkuntzaren kasuan. Gainera, tradizio juridikorik izan ez duenez, erabakiak hartu eta aukera desberdin ugariren artean hautaketak egin behar dira hizkera bateratu baterantz joateko; hots, terminoen kalkoak egin, hitz berriak sortu, maileguak hartu, etab. Inguruan ditugun hizkuntzek bide hori dagoeneko egina izatea

lagungarria gerta dakiguke, pauso horiek guk baino lehenago eman izanak aukeren artean komenigarrienak zeintzuk diren erabakitzeko abantailazko egoeran ipintzen baikaitu, erabaki txalogarrienak hartu eta errakuntza larrienak ekidinez.

Deustuko Unibertsitateko auditorioan entzundako hitzaldien inguruan gogoeta egin ostean, funtsean elebitasunaren kultura falta zaigula esanez amai genezake. Hizkuntza biren parekidetasun ofizialak ez du legerian aintzatetsia egotera mugatu behar; benetako neurriak hartu behar dira euskara bultzatzeko, errespetatzeko, eta, beste arloetan bezalaxe, juridikoan ere gaztelania bezain baliozkoa dela adierazteko.